

GIL 126 Hernioko sinklinal esekia (erliebe alderantzizkatua)



Hernioko sinklinal esekiaren txanga argi eta garbi ikus daiteke mendiaren beraren azpian. Zelatundik, egituraren tamainari antzeman dakioko.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 10' 19,69" N

Long.: 2° 09' 12,08" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 568.815,70 m

Y: 4.780.278,28 m



Nola iritsi

Zelatungo lepora bi isurialdeetatik joan daiteke: Iturrioztik (Andazarrate gaina, GI-2631 errepidean, Asteasu eta Aia artean) eta Alkizatik pago-baso batean barrena, edo Errezildik. Zelatunera bidean goazela, GILa Errezilgo bidetik bakarrik ikusten da.

Azpeititik, GI-2634 errepidea hartu behar da, eta, Errezil herria pasatu ondoren, igotzen jarraitu behar da; eskubiranzko 180°-ko kurba batean, Zelatun lepora daraman mendi-bidea ateratzen da.



Bidanialdetik, tolesa oso-osorik ikus daiteke.

GILaren deskribapen laburra

Hernio mendigunea erliebe menditsu bat da, 1.074 metroko gailur bat duena; sakone-
ra txikiko itsas plataformako kareharri mikritiko urgondarrez osatuta dago (kretazeoak
dira), eta errudista eta koralen fosil ugari ditu. Hernioren gailurra sinklinal eseki baten
aztarnei dagokie; sinklinala Tolosa-Arno antiklinorioaren parte da, hau da, eskualde mai-
lako egitura geologiko baten parte. Haren txangak ipar-mendebaldetik hego-ekialderako
norabidea du, gutxi gorabehera. Bat dator, beraz, EAEko egituren norabide nagusiarekin.

Sinklinal esekia erliebe alderantzikatu mota bat da: topografia hasieran hondoratu batek
modu goratuan agertzen da aldameneko antiklinalen aurrean, higadurak haiek desegin
baititu eta haran antiklinalak eratu baitira. Erliebe sinklinalik goratuenean, dena dela,
gorde egin da haran antiklinaletan jadanik desagertu den serie estratigrafikoaren parte
handi bat.

Eskala handiko egitura bat da; urrutiko begiralekuetatik bakarrik ikus daiteke osorik.

Behatzeko punturik onena

Zelatundik, Bidaniatik edo GI-634ren parterik garaienetik.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** Ez dago.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 117, GIL 118, GIL 119, GIL 120, GIL 121, GIL 122.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala			●	
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala: Hernio Euskal Herriko mendi mitikoetako bat da. Haren gailurra gurutzez beterik dago, eta, iraileko igandeetan, erromeria jendetsu eta ikusgarria egiten da Zelatunen.					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- <http://www.eve.es/publicaciones/cartografia/Mapas/64-III.pdf>
- Gutierrez Elorza, M. (2008): *Geomorfología*. Arg.: Miguel Martín Romo. 898 or.